

Erabateko Iraultzarako Blokea osatzeko nazioarteko topaketara deialdia

Bestelako jendarte baten eraikuntzan behetik lanean ari zareten munduko talde, pertsona eta herriei egiten dizuegu honako deialdia, nazioarteko topaketa bat egin eta Erabateko Iraultza lortzeko Blokea eratu dezagun.

Kokapena

Asko gara munduko lurralde gehienetan ezarrita dagoen jendarte-antolakuntzak gure bizimoduen eremu guztietan krisia eragiten duela uste dugunak: jendartearen eta gure bizimoduen gaineko erabakietatik urruntzen gaitu, lan-indar gisa moneta-aldagai soil bilakatzen gaitu, bakartzen gaitu, banatzen gaitu, eta bizimoduak nahiz ingurumen-baliabideak suntsitzen ditu.

Suntsiketa hau, barne-hutsunea, eta izan gintezkeen horrekiko urruntzea, ez dira soilik agintari txarren edo bihotzik gabeko kapitalista batzuen emaitza, sistemarekiko banaezinak diren dinamiken ondorio baizik, eta beraz, sistema hori osatzen duten erakundeak eta balioen bidez gauzatzen dira.

Jazarpena menpekotasuna da, boterearen bidez ematen dena, eta bortizkeriaren monopolioan agertzen zaiguna: Bortizkeria fisikoa (genozidioak, erahilketak, torturak, errepresioa... errepresio-indarrek egiten dutena), eta baita bestelako egitura eta jendarte-kontrolen bidez egiten delarik onartuagoa den bortizkeria ere (soldatapeko lana, jabego pribatua, komunikabide masiboak, publizitatea, arreta eta laguntza bidezkoa -menpekotasuna eragiten dutelarik-...).

Menperatzea eta boterearen metaketa areagotzen ari dira ia lurralde guztietan.

Erresistentzia guneak

Jende gisa dugun duintasuna desagertarazi nahiean dabil menperatze-politika, horixe baita, bere hortan, erresistentziaren eta bestelako munduak eraikitzearen hazia. Jatorrizko herriek, herri-mugimenduek eta mugimendu-politikoek, burujabeak eta erresistenteak direnek, lurra defendatzeko borroka luzean segitzen dute, hain zuzen ere, esplotazioari, kultur-desegituratzeari eta jendeen umiliazioari aurre eginez. Hala landa-eremuan, nola hirian, duintasunak ematen dizkigu zilegizko bideak herrien, jendetasun-balioen eta herritarron autodefentsarako.

Duintasunak bizirauten duen guneetan ugaritzen dira mobilizazioak: intsumisioak eta desobedientziak indartzen dute, menperatze-egiturak ez laguntzeko jarrera (estatuak, erakundeak eta enpresak).

Asimilizazioarekiko erresistentzia-guneak dira, eta botereari aurre egiten diete. Emultsioan den adimen kolektiboa dira, etengabeko sormena, eta bestelako munduak beharrezko izanik, horiek errealitate bilakatzeko bermea.

Erabateko Iraultzarantz

Erresistentzia-gune horiek itxaropena ere badira, egungo ankerkeria ez onartzeko borondatea agertzen dutelarik. Hala ere, nahigabetzekoa da hainbat eraldaketa-indar erresistentziara edo erreformak eskatzera mugatzea. Gure aldetik uste dugu erresistitu eta egungo sistema gaindituko badugu, pertsona eta herri gisa ber-eraiki egin behar dugula, jendarte berri bat eratu arte.

Duela hainbat hamarkadatik hona, eta bereziki, egungo egoeran bizi dugun krisi-sistemikoak

bizkortuta, jendarte-eraikuntzarako hainbat prozesu abiatu dira, jendartearen erabateko eraldaketarako itxaropena argitzen duten itsas-argi gisa indartu direlarik.

Horietako batzuk elkarrekin koordinatuta daude, baina orokorrean, hurbilekoak diren mugimendu asko elkarrekiko loturarik gabe eta elkarlanik gabe daudela ageri zaigu. Aldi berean, iruditzen zaigu alde batera uzten direla pertsonaren eta kolektiboaren hobekuntzarako beharrezkoak diren lanak, nahi dugun aldaketa gauzatzeko hain beharrezkoak direnak. Elkartuko gaituen marko bat izateko lanean hastea beharrezkoa dela uste dugu, norabide berean arraunean egitea ahalbidetuko diguna, beti ere, bakoitzaren autonomia eta deszentralizazioa bermatuz, eraikiz eta aldi berean erresistituz.

Elkartze horretan aurreratzeko, elkartze-marko hori eratzeko, ezinbesteko urratsa da topaguneak sortzea, horietan iraultza garatzeko modu-jakinak gogoetatzeko eta lantzeko.

Duela gutxi zapatistek adierazi dutenez:

«Baietzaren unea da, “beste modu batean posible al da?” galderari baiezkoa eman diogunok elkartzekoa. Baiezko honen ondotik pilotzen diren galderari erantzuteko unea iritsi da: Nolakoa da bestelako modu hori, amesten dugun mundu edo jendarte berri hori? Zer nahi dugu, zer behar dugu? Zer egin behar dugu? Zeinekin?»

Gaineratzen zutenez, galdera horien erantzunak badauzkagu, ba horiek partekatzeke garaia da. Unea noiz iritsiko zain izan bagina moduan, orain prest gaude erantzunak partekatzen hasteko.

Horrela bada, deialdi hau helarazten dizuegu guzti honi buruz mintzatzeko, elkartzeko eta nazioarteko topagune bat eratzeko, Erabateko Iraultza Blokea izendatu dugun hauxe, hain zuzen ere.

Nola ulertzen dugu Erabateko Iraultza?

Iraultza: Jendarte bat eratzen duten egituren eta balioen erabateko eraldaketa.

Erabatekoa: Osoa izateko elementu guztiak biltzen dituena.

Erabateko Iraultza: Burujabetzan, eta ondorioz, menperatze-modu guztien abolizioan, oinarritzen den jendarte berri bat eraikitzeke prozesu historikoa; beraz, jende-harremanak eta inguruarekiko harremanak kaltetzen dituzten modu guztien desagertzean oinarritzen dena, hala nola, Estatuak eta kapitalismoa.

Elkarbizitzarako ahalmena lortzeko gaitasun eta balioak hobetu eta berreskuratu ahal izateke ekintza kontzientea barnebiltzen du, pertsonal nahiz kolektiboa. Aldi berean, erabakimen- eta oinarritzeko beharren asetze-mailan berdintasuna bermatuko duten antolakuntza-egitura berriak eraikitzea era barnebiltzen du.

Zertarako topagune hau?

- Indarrean den sistemaren arazoekiko **kontzientzia-maila** areagotzeko, balio- eta jendetasun-krisiarekiko eta horien balizko gaitzerearekiko.
- **Identitate kolektibo** bat eraikitzeke, kontrabotere anitzak, erabateko iraultzaren inguruko planteamentu anitzak zabaldu, sustatu eta eraginkortasunez aurreratu ahal izateke.
- Erabateko iraultzaren ideiarekin bat egiten duten jendarte-eraikuntza prozesuak ezagutu eta **ikustarazteke**, ildo berean ekimen berriak sortzeko gogoia piztuz.
- Menperatzeari aurre egin eta jendarte berriak eraikitzeke, **marko bateratu** baten baitan lanean

aritu ahal izateko: Marko horren baitan diren lagunen artean sinergiak sortzeko, eztabaidatzeko, taktikak, baliabideak eta ekintza-planak partekatzeo.

Topagunearen ibil-moldea

Bloke hau marko ideologiko gisa planteatzen dugu, eta ez antolakunde moduan, agertu ditugun arrazoiengatik eta baita bere ibil-moldea errazteko ere. Blokearen kide diren taldeak, eta haren baitan sortzen diren ekimenak ere erabat autonomoak izanen dira. Blokearen Ibil-moldeak dituen alde anitzak (kideak, komunikazio-tresnak, topaketak, erabakiak...), topaketaren aurreko prozesuan zehar guztion artean marraztea proposatzen dugu.

Zein dira topaketaren helburuak?

- Elkar-ezagutzea, eta esperientzia eta estrategiak partekatzea.
- Blokearen oinarriak edo sortze-adierazpena berrestea.
- Blokea eratzea, ibil-moldea adostuz eta abiatze-taldea deseginez.

Noiz eginen dugu?

Topaketak ez du data jakinik. Kolektibo multzo zabal eta anitz batek bertan parte hartzeko interesa agertzean egitea proposatzen dugu. Gutierrez, hiru hilabete lehenagotik eginen litzateke deialdia.

Eta topaketa aitzin?

Orain hasi eta topaketa bitartean, topaketa hori eta horren eduki nagusiak prestatzen hasteko prozesua abiatzea proposatzen dugu, adibidez, Blokearen sortze-adierazpena eta haren antolakuntzari dagozkion aldeak zehaztuz.

Deialdi hau zuen lurraldeetan zabaltzera animatzen zaituztegu, eta bide batez, lurralde mailako topaguneak eratzen hastera.

Nola parte hartu prozesuan?

Erabateko Iraultza Bloke honen sorreran parte hartu nahi izanez gero, honako bi modu hauetara egitea proposatzen dizuegu:

- Abiatze-taldean parte hartu edo lanen batean lagundu nahi izanez gero, banako [pertsonendako formulario hau](#)¹ bete.
- Talde bazarete eta prozesuan edo/eta topaketan parte hartu nahi baduzue, bete taldeentzako formulario hau².

Nolakoa izan liteke topaketa?

Lau eguneko topaketa proposatzen dugu, gisa hontan banatua:

- Aurkezpen eta elkar-ezagutzarako egun bat.

1 <http://integrarevolucio.net/eu/banakoentzako-formularioa>

2 <http://integrarevolucio.net/eu/taldeentzako-formularioa>

- Esperientziak eta estrategiak partekatzeko, eta adierazpenari nahiz antolakuntzari buruzko ekarpenak egiteko, taldekako lana, bi egun.
- Ondorioak eta itxiera, egun bat.

Non egin liteke?

Catalunyan egitea proposatzen dugu, iristeko erraza den eta parte hartzaile guztientzat ostatua bermatuko lukeen lekuren batean.

Abiatze-taldea

Kataluniar lurraldean (Europa hego-mendebaldean) gauden pertsona-talde bat gara, **Erabateko Iraultzarako Blokea** eratzeko helburua finkatu dugularik. Erabateko Iraultzaren ideari lotutako hainbat ekimenetan parte hartzen dugu, horien artean nabarmentzen delarik Kooperatiba Integralen mugimendua. Ildo berean ari diren mundu osoko praktikak elkarlotuko eta indartuko dituen eta ikustarazia izanen den espazio ideologiko baten beharra somatzen dugu.

Deialdiaren oinarri ideologikoak

Oinarrizko printzipioa, menperatze-modu ororen aurkako borroka eta Erabateko Iraultzaren bidez bestelako jendarteak eraikitzea da.

Honako puntuekin garatzen dugu hori, eskematikoki aurkezten ditugun oinarri ideologikoen forma dutelarik, eta Blokearen sortze-adierazpena osatzeko landu egin beharko direlarik.

1) Askatasunean oinarritutako jende-harremanen berdintasuna

- Jendeen arteko menperatze edo bazterketa modu oro gaitzesten dugu, horiek edozein arrazoiengatik izanda ere: generoa, sexualitatea, etnia edo kultura, jendarte-maila...
- Elkarlaguntzaren eta elkartasunaren aldeko apustua egiten dugu, hurbiltasunaren, errespetuaren, kidetzaren, eta orohar, jendeen arteko maitasunaren alde.
- Jendeen egungo suntsiketa irauli nahi dugu, munduko leku gehienetan gertatzen dena eta menperatzaileak diren eliteek kontzienteki sustatzen dutena. Pertsonak ahalduntzen garen heinean, segurtasun gutiago izanen du sistemak.
- Hobetzeko borondatea behar dugu, entzuketa aktiboan eta etengabeko gogoetan oinarritutakoa, bai eta kritikarako eta autokritikarako gaitasuna hobetzeko ere.
- Jendeen arteko harremanen praktika egokiak erabat zabaldu nahi ditugu.

2) Autoantolakuntza eta herri-batzar burujabeak

- Batzarra, erabakitzeke eta partehartzeko ahalmen bera duten edozein jendarte, herri edo talderen zilegizko antolamendua da, askatasunerako beharrezko baliabidea izanik.
- Herri-batzar burujabeak: norbanakoek, herriek eta eskualdeek partehartzeko duten askatasuna erabiliz eratutako jendarte-antolaketa, herriaren autodeterminazioa lortuz.
- Elkartasuna, askatasuna eta zabalkundean oinarrituz eratutako herri eta eskualdeen arteko harremanak: zuzena den interdependentzia, harremanetarako erreztasuna eremu ttikienetatik handiagoetara, ahal dena ttikian erabakiz eta beharrezkoa dena handitasunean

(subsidiotasun, konfederazio, fraktaltasun... printzipioak)

- Aniztasunean eginiko eraikuntza, jendeen arteko desberdintasunak eta desberdintasun pertsonalak errespetatuz, batzarreko erabakietan gutxiengoak beti kontuan hartuz.
- Beraz, Estatuaren izaera orori auka egitea.

3) Denona dena, herriarena dena.

a/ Jabetza herri-ondasun gisa berreskuratzea, herriaren jabetze eta eskuratzearekin.

- Lurraren eta ekoizpenerako ondasunen jabetza berreskuratu behar dugu, herri-jabetzearen bidez bermatuz horien erabilera, hau da, herri-ondasun bilakaturik.
- Lurra eta ekoizpen baliabideak menperatzeko eta kapitala metatzeko tresnatzat duten jabego pribatua baztertzeko dugu, soldatapeko lanaren, ustelkeriaren, metaketaren eta zapalkuntzaren bidez mantentzen baita menperatze-erregimen hori.
- Interes pribatuak aldentu eta banatzen gaitu, herri-jabegoak eta -ondasunak suntsituz.

b/ Elkarlaguntzaren bidez sistema publiko autogestionatua eta kooperatiboa eraiki

- Guztion onurarako ari gara lanean, ditugun halabeharrezko beharrak (elikadura, osasuna, etxebizitza, hezkuntza, energia, garraioa...) benetako sistema publiko baten bidez bermatzeko, guk geuk eraikitakoa autogestioan eta elkarlanean oinarrituz, jendetasun baloreak eta ahalmenak sustatuz.
- Estatu baztertzeko dugu, jende batzuek gainerakoak esplotatuz eta administrazio-laguntzen bidez jendeenganako arreta indibidualizatuz eratutako kontrol-sistema gisa ulertzen baitugu. Era berean, gutxiengo batek ondasun publikoak kontrolatzea baztertzeko dugu, Estatuaren nahiz merkatuaren bidez izan, eta beraz, gutxiengo batek eratzeko duen egitura pribatu korporatibo-elitista osoa.

c/ Informazioa eta jakintza eskuratzeko bidea irekitzea

- Informazioaren irisgarritasuna eta sorkuntza askea eskatzen ditugu. Ikertzeko eta berriak bizitzeko beharra garatzen ditugu jakintza-iturri moduan.
- Jakintza guztion artean elkartrukatu, ongizate orokor oparoago bat eraikitzeko.

4) Elkarlaguntzan eta gertutasunean oinarritutako ekonomia berria

- Kapitalismoari aurre egiten diogu, indartsuenaren legean eta betiereko hazkundera oinarritzen den ekoizpen mekanismo eta merkatua delako.
- Egungo finantza-sistemari aurre egiten diogu, banku zentral eta banku pribatuek menderatzen dutena, era berean, diruari erantzen zaion interesa baztertu egiten dugu.
- “Bakoitzak ahal duena eta bakoitzari behar duena” ideia jarraitzen dugu.
- Elkarlanaren aldeko apustua egiten dugu, berdinen arteko eta desberdinen arteko harreman ekonomikoaren oinarritzat.
- Lanean nahiz kontsumoan, kooperatibismo-praktikaren zabalkunde sendoa egiten dugu.
- Txanpon askeak, truke zuzena, borondatezko emarien ekonomia eta partekatze-ekonomia,

ekonomia-sistema berri bat lortzeko ekintza-tresna gisa.

- Ahalik eta tokikoena den ekonomia, bitartekorik gabekoa. Ekoizleeren eta kontsumitzaileen arteko harreman orekatua.
- Beharrezkoa den lekuan herri finantza-sistema eta interesgabea aplikatzea.

5) Bizitza eta naturarekin elkarlanean

- Naturarekiko elkarlan, babes eta errespetuz bizi gera, haren parte garelako, beraz, gainontzeko izaki bizidunekin bizikidetzatza egokia ziurtatzen dugu. Herri burujabatzak jokabide hauek baimendu eta sustatzen ditu.
- Naturaren zikloak kontuan izan behar dira, denboran zehar, belaunaldiz-belaunaldi, jendeen eraginaren jasagarritasuna bermatzeko.
- Egungo sistemaren balio eta jokabideei aurre egiten diegu, bizitza arriskuan jartzen dutelako, gurea barne, eta, gainera, berriztagarriak ez diren baliabideak agortzen dituelako.
- Baliabide berriztagarriak era deszentralizatu batean erabili behar ditugu, jende-taldeek buruaskitasuna sustatuz eta baliabide-harrapari diren hiriak murriztuz.

6) Nola gauzatuko dugu?

- Helmuga eta Bidearen arteko koherentziak: Erabateko Iraultzaren prozesua, egungo sistemaren eta jendarte/gizadi berri baten arteko transizioa da. Batetik bestera igarotzeko bidea helmugaren ikasketa eta irudi da. Beharrezkoa da, beraz, eraldaketa honetarako bitartekariak desiatzen ditugun helburuekin bat egitea.
- Egitura eta balioen aldibereko eraketa dialektikoa: balioen eraldaketa beharrezkoa da egitura aldatzeko, baina balio eraldaketa sakon eta zabala egin ahal izateko, horien gauzatzea ahalbidetuko duten egitura berrien beharra dago.
- Helburuarekiko koherentziari eutsiz, herri-mugimenduetan oinarrituz gauzatu behar dugu Erabateko Iraultza, zabalkundearen eta tokiko ekintzaren aldeko apustua eginez, baina pentsamodu globala kontuan harturik. Iraultza hau aldiberean garatzen bada lurralde eta eskualde ugarritan, indartsua bezain geldiezin izango da.
- Osagarri diren herri eta jende-taldeen antolatzeke zilegizko eskubide besterenezina dute eta haien bizitzen, segurtasunaren, kulturaren eta lurraldearen autodefentsa gauzatzeko eskubidea dute, egoki ikusten duten moduan gauzatzuz, betiere “jendeenganako bortizkeria ahalik eta gehien murriztuz eta askatasuna eta pertsonen bizitzak ahalik eta gehien errespetatuz”.
- Iraultza hau gauzatu ahal izateke, egungo sistematik ahalik eta baliabide, lan eta zilegitasun gehien berreskuratzeko eta eraikitzen ari den jendarte berrian erabiltzeko, guztiz zilegi eta beharrezkoa ikusten dugu erabateke desobedientzia. Testuinguruaren arabera hura erabili behar delakoan gaude, gure eraldaketa areagotzeko gisan erabiliz.